

MUSIKA LEHIAKETAREN OINARRIAK

“DURANGOKO KULTURALAREN MENDEURRENEKO ERESERKIA, 1919-2019”

Durangon egoitza duen DURANGOKO KULTURALAK “**DURANGOKO KULTURALAREN MENDEURRENEKO ERESERKIA, 1919-2019**” musika lehiaketa antolatu du. Helburua da gure Klubari nortasuna emango dion eta sinbolo izango den musika-konposizioa bat eskuratzea.

Honakoak dira lehiaketa honen oinarri zehatzak:

- 1.- Edozein pertsona fisikok parte hartu dezake, nazionalitatea eta adina edozein dela.
- 2.- Parte hartzaileek nahi adina obra aurkeztu dezakete; lan originalak eta saritu gabeak izan beharko dute, ezingo dira izan beste lehiaketa batzuetako ebazpenaren zain daudenak.
- 3.- Ereserkia Euskaraz idatzita izan beharko da.
- 4.- Originaltasunari emango zaio balio berezia, baita interpretatua izateko egokitasunari ere.
- 5.- Konposizioek, gutxienez, 3 minutuko iraupena izango dute eta, gehienez, sei; eta letrak oinarri hauetako II. ERANSKIN gisa aurkeztu behar da. Estrofa eta errepikak nahi den eran konbinatu eta erabili daitezke, konpositoak askatasun gehiago izan dezan estetikoki eta forma aldetik.
- 6.- Lanak paper formatuan aurkeztu behar dira, sinatu barik eta egilearen izen edo markarik agerian utzi barik. Lan bakoitzeko, ondoko dokumentuak bidali behar dira: partitura nagusiaren (gidoia) bost ale paperean; material sorta bat (*particellak*); eta aipatutako dokumentuen kopia bat formatu digitalean (CDa, **USB...**), eta horrekin batera, entzunezko bertsio bat MIDI edo antzeko euskarri batean. Konpositore edota egileek gutunazal baten barruan, plika bat osatuta, ondoko dokumentuak aurkeztu behar dituzte: euren datu pertsonalak, telefonoa, NANaren fotokopia eta egile edota egileen curriculum laburra. Plika bakoitza egileak aukeratutako izenarekin

identifikatuko da. Baldintzak betetzen ez dituzten obrak, berehala geldituko dira lehiaketatik kanpo.

8.- Lanak aurkezteko epea oinarri hauek argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko da eta 2019ko urriaren 1a izango da azken eguna. Konposizioak honako helbidera bidali behar dira: "DURANGOKO KULTURALA", Tabira kalea 62, 48200 DURANGO.

9.- Irabazleak 1.000 euroko saria jasoko du.

10.- Erabakia apelaezina izango da eta 2019ko azaroaren 10eko jendaurreko sari-banaketa ekitaldian jakinaraziko da. Sarituak ezinezkoa badu bertaratzea, ordezkari bat baimendu ahalko du bere izenean saria hartzeko.

11.- Ereserki irabazlea DURANGOKO KULTURALAREN esku geldituko da, eta sortzailearenak izango dira lanaren egile-eskubideak.

12.- Saria hutsik gelditu daiteke epaimahaiak horrela erabakitzen badu. Halaber, epaimahaiak ahalmena izango du oinarri hauetan aurreikusten ez diren gaiei erantzuna emateko.

13.- Lehiaketa honetako Antolaketa Batzordeak eta Epaimahaiak, testuei dagokienez, ez dute parte hartzaileekin harreman batere izango, eta ez dute inolako informaziorik emango, ez bada Sari-ematearen Akta Ofizialean bildutako erabakia.

14.- Epaimahai-kideak nor diren lehiaketaren epaiaren berri ematen denean jakinaraziko da.

15.- **"DURANGOKO KULTURALAREN MENDEURRENEKO ERESERKIA, 1919-2019"** musika lehiaketa honetan parte hartzeak arau hauek onartzea dakar, eta berauen interpretazioa Elkarteari eta Epaimahaiari dagokie.

Informazioa: info@culturaldurango.org.